



2 HEZKUNTZA

Familiak eskola materiala erosteko laguntza

Lasarte-Oriako Udalak Hezkuntza arloan diru-laguntza lerro berria jarri du martxan, 2016-2017 ikasturako eskola materiala erosteko laguntzak. LH eta DBH mailako materiala finantzatu da bakarrik. Udalak familiaren errentaren arabera, 75 euro, 50 euro eta 25 euroko laguntzak eskainiko ditu. Laguntzen onuradun izateko, eskola materiala Lasarte-Oriako dendatan erosi beharko da. Era honetara, herriko komertzioa ere sustatzea du helburu Udalak.

5 ASTE BERDEA

Espezie inbaditzaileei buruzko kanpaina

Aurtengo Aste Berdean, Lasarte-Oriako Udalak gure ingurunearentzat kaltegarriak diren hainbat espezie inbaditzaileei buruzko informazioa eskainiko die herritarrei. Datozen eguntan Lasarte-Oriako etxeetara iritsiko da informazioa. Honez gain, azken urteetan arazo larria den Asiako liztorrei buruzko karpa informatiboa jarri da asteazkeneko azokan eta larunbata goizean, Okendo plazan.



Larunbatean Islada Ezkutatuak taldekoen aurkikuntza eman zen argitara. Paco Etxeberria Aranzadiko forenseak eman zituz zehaztasunak Jaurlaritza, Aldundia eta udal ezberdinetako ordezkarien aurrean. Txaldatxurren aurkitutako lehenengo gorpuzkia da eta adituek ez dute baztertzen gehiago egotea. Hezur batzuk dira aurkitutakoa munizioa, orrazia eta botoien artean besteak beste.

Islada Ezkutatuak taldeko lagunek jasotako testigantzen arabera, Txaldatxur inguruan hobiak egon zitezkeen. Horiek aurkitzea jarri zuen herritar taldeak helburu eta baita topatu ere, larunbatean Aranzadiko kideekin aurkeztu zuten aurkikuntza berria.

Hala ere, urte asko pasa dira eta Txaldatxurgo gaina asko aldatu da. Aztarnak topatzea oso lan zaila izaten ari zela aurreratzen zuten taldeko kideek duela hilabete batzuk. Aztarna horiek gabe, ezinezkoa zen leku zehatza topatzea. Azkenean ordea, lan gogorrak bere fruituak eman ditu eta argitara atera da lehenengo gorpuzkia.

Paco Etxeberria forenseak azaldu zuenez, hezur gutxi batzuk dira topatutakoak oso sakonera txikian lurperatu zutelako,



Paco Etxeberria forenseak eman zituen larunbatean azalpenak erakunde eta prentsaren aurrean.

“urteen poderioz hain gainazalean egonda, urak desegin eta eraman ditu arrastoak”.

Hala ere, hezurrekin batera, orrazi bat, munizioa, botoiak eta gerrikoaren plakak azaldu dira besteak beste.

Txaldatxurren erakunde guztietako ordezkariak bildu ziren, Eusko Jaurlaritzatik Monika Hernando Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Maribel Vaquero Aldundiko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendaria eta Donostia, Usurbil, Zubieta eta Lasarte-Oriako udal ordezkariak. Guztiek bat egin zuten herriko taldeak egiten duen lanaren garrantzia azpimarratzen. Horretaz gain, justizia egitea dela aipatu zuten.

Isladako kideek, eskaera zuzena egin zieten erakunde berri berran lanean jarraitu

ahal izateko “gure historia-
ren gune garrantzitsu bat da
hau eta nolabaiteko babesa
beharko luke inguruneak”.

Alfredo Irustaren laguntza
Hala ere, larunbatean Islada Ezkutatuak taldeko lagunek bereziki eskerrak eman nahi izan zituzten Alfredo Irustari. Bizkaitarrak urteak daramatza boluntario Aranzadirekin kolaboratzaile lanetan. Interneten Lasarte-Oriako taldearen lanaren berri izan zuen eta herrira semearen kros batera etorri zela, taldearekin harremanetan jarri eta bere metal detektorearekin Txaldatxurrera igo zen. Esperientzia luzea du gorpuzkiak topatzen eta gerrikoaren plaka batek pista

emanda, inguruan zegoena hezurak zirela ikusi zuen. Horrela, Aranzadiri abisua eman eta haiek hartu zuten aztarnak ikertzeko lana.

Aipatu behar da, 1936ko abuztuan eta irailean eraso zituztela Lasarte-Oria eta inguruak. Gehienbat, Teresa-tegi, Santa Barbara, Andatza edota Txaldatxur mendietatik defendatu zuten herria.

Horregatik, Txaldatxur gainean zenbait lubaki aurkitu zituzten Islada Ezkutatuak taldeko kideek, Nazionalen eta Errepublikanoen guneak. Aztarnen arabera, errepublikanoa litzateke aurkitutakoa. Egun zuhaitzek ondo ikusten uzten ez badute ere, kontutan izan behar da Txaldatxur gainetik inguruko herrietako 360 graduko bista zegoela 30eko hamarkadan.



www.lhusurbil.eus
943 36 46 00

Etarte bidea, 9 (Zubieta) - 20170 Usurbil

AURREMATRIKULA Ekainaren 6tik 17ra



Erdi eta goi-mailako zikloak
A, B eta D ereduak



LAGUNTZA

Eskolako materiala erosteko laguntza

Udalak 25, 50 eta 75 euroko laguntzak emango ditu seme-alaba bakoitzeko

Udalak eskolako materiala Lasarte-Oriako dendetan erosteko diru laguntza lerro bat jarri du martxan 2016-2017 ikasturterako. Honakoa lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago eta laguntzak 75, 50 edo 25 eurokoak izan ahalko dira familien errentaren arabera seme-alaba bakoitzeko.

Maite Iglesias Hezkuntza zinegotziarekin batera aurkeztu zuen Jesus Zaballos alkateak egitasmo berria Udaletxeko material biltegian.

Azaldu moduan, guztira 10.000 euroko diru partida jarriko du Udalak laguntza hau herriko familiei eman ahal izateko. Alkateak ekimenak bi helburu dituela azaldu zuen; batetik herrian langabezia dela eta gaizki pasatzen ari diren familiak lagundu eta bestetik, jendeak eskolako materiala Lasarte-Oriako herriko dendetan eros dezan sustatzea.

40.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten familiak izan daitezke laguntza honen eskatzaileak.

Horrela hiru multzo bereizi ditu Udalak diru sarreren arabera, ikasle eta familia unitate bakoitzeko jaso daitezkeen

laguntzak honako hauek izango dira: 20.000 eurotik beherako diru-sarrerentzat, 75 euro; 20.000 eta 30.000 euro bitarteko diru-sarrerentzat, 50 euro eta 30.000 eta 40.000 euro bitarteko diru-sarrerentzat, 25 euro.

Materialari dagokionez izan daiteke idazmahaikoa, eskolako jarduerarako behar diren arropak, optometriako materiala, kirolerako materiala edo jarduerarako artistikoetarako beharrezkoak direnak. "Erosketak uztailaren 1etik irailaren 30a bitartean egin ahal izango dituzte familiak baina erosketak gorde eta hauek aurkeztu beharko dira" esan zuen Iglesiasek.

"Azpimarratu behar da, erosketak guztiak herriko dendetan egin beharko direla, inguruan ditugun merkataritza gune handietan egiten direnak ez dira kontutan hartuko". Horrekin lotuta, 75 euroko laguntza jaso-



Udaleko material biltegian egin zuten udal ordezkariak argazkia.

tzeko aukera izanda, 75 euroko gastua egiaztatzen duten tiketak aurkeztu beharko dira, "45 euroko erosketak aitortzen badira, 45 euro jasoko lituzke familiak. Gehiago aurkeztuta ere, gehienez dagokion laguntza jasoko da seme-alaba bakoitzeko".

Derrigorrezko hezkuntza

Lehen eta bigarren hezkuntzako derrigorrezko etapetan eskolatutako adingabeak

dituzten familiek izango dute laguntza jasotzeko aukera, berdin delarik zein udalerritan eskolatuak dauden.

"Hori bai, ezinbestekoa izango da herrian erroldatuta egotea". Batxillergoan edota haur hezkuntzan dauden haurrak ez dira laguntza lerroan sartzten.

Laguntza jaso ahal izateko, eskaerari erantsi beharko zaizkio herriko dendek emandako tiket edo faktura sinplifikatuen

jatorrizkoak. Tramitazioa kultur etxean edota on-line egin ahal izango da. Internetetik egiten duenak, egiaztagirri eta dokumentazioa eskaneatuta eta elektronikoki behar bezala sinatuta erantsi beharko du.

Epeak eta informazio gehiago www.lasarteoriaran.eu/laguntzak atalean jarri ditu udalak. Horretaz gain, aurreratu zuten, informazioa herriko etxe guztietan jasoko da datozen egunetan.

Sahararen egoera ezagutzeko hitzaldia

Hassana Aalia sahararrak hitzaldia eskainiko du bihar Furia Beltza tabernan 19:30ean.

Hitzaldia otsailaren 27an, Saharar errepublikaren aldarrikapen eguneko ekintzeta bat zen baina orduan hizlaria gaixo zegoela eta, bertan behera utzi behar izan zuten topaketa sustaileak.

Oraingoan, berriz ere gonbitea luzatu dio herriko Saharar herriarekin elkartzun taldeak eta biharkoan

bertaratutakoek aukera izango dute Mendebaldeko Sahara okupatuaren egungo egoera zein den ezagutzeko.

Sarrera doan izango da eta herritarrek animatzen dituzte bertaratzea.


Bilketa

Horrekin batera larunbatean bilketa berezia egin zen Okendo plazan.

Amasako aterpetxean uda igaroko duten 15 haur sahararrentzat laguntza jasotzea izan zuten helburu.

Horregatik janariaz gain, haurrentzako arropa, jostailuak, motxilak, dutxa eta igerrilekurako toallak jaso ziren besteak beste. Larunbatean gerturatu ezin izan zuten herritarrek oraindik materiala emateko aukera izango dute aste honetan Jaizkibel plazako Bikain okindegian.


Oporrak bakean egitasmoaren baitan hainbat izango dira Euskal Herriko familiek hartuko dituzten haur sahararrak. Lasarte-Oria 8 izango dira etorriko direnak.



Mendebaldeko Sahara okupatuaren egungo egoera ezagutzeko hitzaldia izango da biharkoan.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzailea:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

LAB



'Langileok bideak batuz!' lelopean eskualdeko manifestazioa egin zuen LABek herriko kaleetan zehar, ostiral arratsaldean.

Langileriaren aldarriak herriko kaleetan barrena

Eskualde mailako manifestazioa egin zuen LABek ostiralean

Manifestazio jendetsuak eman zion amaiera ostiralean LAB sindikatuak antolatutako Borroka Asteari. Horren bitartez, eskualdean dagoen egoera ekonomikoa eta lan baldintza prekarioak salatu ziren Lasarte-Oriako kaleetan barrena. Ingemar ez ixteko ere eskatu zuten.

TXINTXARRI

Ostiralean, LAB sindikatuak eskualdean antolatutako Borroka astearen azken eguna izan zen. Honetan bi ekintza nagusi egin zituzten.

Goizean, Usurbildik atera eta eskualdeko herrietan barrera kotxe karabana izan zen.

Eskualdeko egoera ekonomikoa eta enpresen lan baldintzak salatu zituzten.

Bereziki, Usurbilgo Ingemar enpresak bizi duen egoera atera zuten kalera. Langileak gaurtik aurrera greban daude eta bideragarritasun plan bat eskatu diote enpresari Usurbilgo lantegiak martxan jarrai dezan. Egoera hau dela eta 'Ingemar ez itxi!'

kartela irakurri ahal zen karabana osatzen zuten kotxeetan.

Manifestazioa herrian zehar Bestalde, arratsaldean, eskualdeko manifestazioa izan zen Lasarte-Orian.

'Langileok bideak batuz!' lelopean, Okendo plazatik irten eta erdialde zein Zumaburu auzoko kaleak zeharkatu zituen. "Prekarietatea, hiltzailea" eta "Lan-istripua, terrorismo patronala" bezalako aldarriekin gaur egungo lan-baldintzak salatu zituzten. Era berean, Usurbilgo Ingemar ez ixteko eskatu zuten.

Palomo Linares, 50. urteurrenaren atarian

49. urteurrena ospatu zuten Palomo Linares elkarteko kideek maiatzaren 29an. Ohi bezala, mahaiaren bueltan bildu ziren, bazkari legea egin bitartean menu goxo bat dastatzeko.

Jaten hasi aurretik, Jose Mari Escribano lehendakariak hartu zuen hitza. "Espero dut zuen gustukoa izango dela menua; orain arte egin bezala, elkar gaitzela urtero-urtero elkartean, urteurrenak ospatzen jarraitzeko".

Era berean, minutu bateko isilunea egin zuten, urte honetan zendu diren bazkideen omenez. On Ramon Uribe-Etxebarria apaizak mahaiaren bedekatu ostean hasi zen bazkaria.

Urdaiazpikoa eta patearekin hasi ziren; ondoren, entsalada epel goxoa jan zuten hori eta



Talde argazkia atera zuten Palomo Linares elkarteko kideek bazkaria baino lehen.

gero, bakailoa saltsan; gero etorriko zenari tokia egiteko sorbetea edan zuten; azpizunari ekin zioten ondoren; eta txokolate zein kremazko hojaldrearekin amaitu. Giro ederrean bete zituzten sabelak denek.

Berezia izango da oso 2017. urtea elkartearantz. Izan ere, sortu zenetik mende erdia beteko da. 49. urteurreneko ospakizunak amaitzearekin batera, 50.ekoei ekin diete jada.

KULTURA

Dantza ikastaroetako aurrematrikula

6 eta 11 urte arteko gaztetxok eta helduek dantza egiteko aukera dute Lasarte-Oriako Udalak eskaintzen dituen dantza ikastaroetarako.

Erroldatuek 31,90 euro ordaindu behar dituzte hileko; erroldatuak ez dauden pertsonak aldiz, 54,90 euro.

Informazio gehiago eskuratu edo aurrematrikula egin nahi duten herritarrek ekainaren 15era dute Manuel Lekuona kultur etxeko bulegoetara hurbiltzeko.

BILERA

'Ondo ibili' egitasmoaren balorazioa

Ekainaren 9an 10:00etan 'Ondo Ibili-Ibiltzea Osasuna da' programa baloratzeko bilera egingo da Jubilatuen Elkartean; programa hau pertsona zaharrei zuzenduta dago eta uda iristearrekin batera bukatzen da.

Lasarte-Oriako boluntarioz eta hainbat elkarte osatutako taldeak (Nagusilan, Biyak Bat, Donantes de Sangre, Atsobakar), eguraldi ona nahiz txarra egin, ostiralero elkartu da, 11:00etan, Okendo Plazan, lau ibilbide desberdin egiteko. Beti izan dute alboan Osakidetzako langileen laguntza.

Taldearen martxa, taldea ezagutzera eman eta partaideen kopurua mantentzeko burutu diren ekintzak besteak beste baloratuko dira.

HITZALDIA

Nerabeekin harremanak

Ekainaren 8an, 18:00etan, Norbera elkarteak 'Nerabeak dituzten familiek: tratu oneko erlazioaren ezaugarriak' izeneko hitzaldia emango du Manuel Lekuona Kultur etxean. Hau irekia izango da eta bereziki nerabeak dituzte herritarrei zuzentzen zaie.

KULTURA AUZOETARA

Ipuin-kontalaria eta musika

Lasarte-Oriako Udalen 'Kultura Auzoetara' programaren barruan, bihar, Oriako auzoko bizilagunek ipuin-kontalariak eta Udal Musika eskolako ikasleen kontzertuak gozatuko dute.

Kultura egitaraua 18:00etan hasiko da, haurrentzako ipuin saioa izango da, La Esperanza auzo-elkartean lokalean. Lur Usabiaga ipuin-kontalariak 3 eta 7 urte arteko haurrei zuzendutako saioa eskainiko du.

19:00etan, berriz, Karmengo Ama Birjinaren kaperan, Udal Musika Eskolako ikasleen txanda izango da. Gazteek hainbat doinu ezagun eskainiko dituzte, hala nola, 'Aldapeko', 'Maite', 'Txuriko', 'Oh, happy day' edo 'La cucaracha'.



Lasarte-Usurbil BHIko Batxilergoko 2. mailako ikasleei agurra

Bide bat bukatu, berri bati ekiteko. Pasa den ostiralean Lasarte-Usurbil BHI institutuaren aitortza jaso zuten Batxilergoko 2. mailako ikasleek. Aste honetan ekingo diete unibertsitatera sartzeko hautaprobei askok; beste batzuek, aldiz, Lanbide Heziketak eskaintzen dituen aukeretara joko dute. Egun batez

tentsioaz ahaztu eta ospakizunaz gozatu zuten ikasleek.

Amaia Serrano EHUKo irakaslearen hitzaldia eta gero, familia argazkia atera zuten ikasleek. Era berean, ohorezko matrikula lortu duten hiru ikasleek – Unai Iribarrek, Iñigo Otaegik eta Enara Cruzek – opari bana jaso zuten. 'Luntx' batekin bukatu zen ekitaldia.

Espezie inbaditzaileak Aste Berdean

Asiako liztorraren inguruko informazio gunea jarriko da asteazkenean azokan

Aste Berdean Lasarte-Orian dauden espezie inbaditzaileen inguruko kontzientziazio kanpaina egingo da. Asteazkenean azokan eta larunbatean Okendo plazan, Asiako Liztorraren inguruko argazki, habiak edota erleak izango dituen karpa informatiboa jarriko da. Udaletik herritarrak animatu nahi izan dituzte hauek hobeto ezagutzera.

TXINTXARRI

Azken urteetan egin bezala, Europa mailako Aste Berdearen baitan, Udalak Artelatzeekin batera ekimen berezia gauzatuko du.

Agustin Valdivia Ingurumen zinegotziak azaldu zuenez ostiralean egindako agerraldian, "garrantzitsua iruditu zaigu herritarrak kontzientziazioa espezie inbaditzaileen inguruan". Izan ere, gurean kalteak eragiten dituzte jatorriz beste lurralde batekoak diren landare edo animalia hauek.

Valdiviak azpimarratu zuenez, espezie horien inbasioaren jatorria gizakiaren ekintzetan eta aldaketa klimatikoan dago. Landareen kasuan zehazki, gehienak herrira apaingarri modura ekarri ziren izango zuten eragina aurrez jakin gabe eta horrela pixkanaka ingurua kolonizatu dute eta bertakoei lekua kenduz joan dira.

Gure kasuan, panpa belarra, banbu japoniarra, sasiakazia eta tximeleten zuhaixka dira.

Asiako liztorra

Animalien kasuan, Asiako liz-

torra eta Amerikako ibai-karramarroa dira herrian zabalduen daudenak.


Hain zuzen, bereziki lehenengoei buruzko informazioa emango da herritarren artean. Artelatzeak asteazken goizean jarriko du karpa berezia azokan eta bertan habiak, argazkiak eta erleak ikusteko aukera izango da. Larunbatean Okendon jarriko da informazio gunea.

Etxe guztietan

Informazio guneaz gain, etxe guztietara bidaliko da herrian dauden espezie inbaditzaileen inguruko eskuorri bat. Bertan hauek identifikatzeko fitxak azaltzen dira baita hainbat aholku ere, "herritarrek ezezagutzagatik mota honetako animalia zein landararik zabaldu ez dezaten". Izan ere, "adibide garbiena Froilan Elespe parke botanikoan dago".

Ibai-karramarroak ezin ditu udalak kendu kalterik eragin gabe, "hauek hezegunaren ekosistema eraldatu dute eta garai batean hiru egunez bertan geldialdia egiten zuten enarek dagoeneko ez dute egiten" azaldu zuten udal ordezkariak.

Asiako Liztorra bereziki



Artelatze Mikel Urruzola, Jesus Zaballos eta Agustin Valdivia Aste Berdearen aurkezpenean.

kaltegarria da bertako erlearentzat. "Kaltea herriko erlezainek pairatzen dute. Hala ere, gure inguruan eragiten dutena herritarrek jakitea funtsezkoa da".

Udalarentzat hauen lehenengo habiak topatzea da lanik garrantzitsuena, habia txikiak dira eta hauek kentzea funtsezkoa da ondoren ez ugaltzeko. Hauek ahalik eta lasterren aurkitzeko herritarren laguntza eskertzen du Udalak eta identifikatzeko Asiako liztorraren ziklo biologikoa azaldu eta irudiz osatzen da eskuorrian.

Azpimarratu nahi izan zuten, kanpaina garrantzi-

ESPEZIE INBADITZAILEEN MEHATXUA

La amenaza de las especies invasoras



Esku-orria etxe guztietara banatuko datozen egunetan.

tsua egiten dela ingurumen sailetik liztor komunitatea gurean kontrolatzeko.

Aurkezpenean jendea

animatu zuten informazio gunera gerturatu eta herriko ekosistemak zaintzearen garrantziaz jabetzera.

Euskara, ezagutzatik erabilerara

Mikro ireki saioa izango da Jalgin asteazkenean

Ttakun elkartearen 25. urteurreneko ekintzen barruan solasaldi berezia izango da Jalgin asteazkenean 19:30ean. Euskararen erabileraz ariko dira Lutxo Egia, Aitziber Gurutzeaga, Maddi del Campo eta Mari Karmen Ormazabal.

TXINTXARRI

Ttakun Kultur elkarteko 25. urteurrenaren barruko ekintza da 'Euskara, ezagutzatik erabilerara' mikro irekia.

Lutxo Egia bilbotarra, Aitziber Gurutzeaga egitarra, Maddi Del Campo aňorgarra eta Mari Karmen Ormazabal Ttakun Elkarteko kidea izango

dira hizlari asteazkenean Jalgin 19:30ean izango den saioan. Esperientzia trukaketa izango da eta hubiltzen diren herritarrek galderak egiteko aukera izango dute.

Esperientzia indibidualak eta kolektiboak

Lutxo Egiak 30 egun euskaraz soilik hitz egiten pasa zituen Bilbon. 'Bi-lingual: Transitoak'

performancea izan zen eta bere hirian atzeritartzat hartzea bizitu zuen besteak beste. Egun horietan bizitakoak kontatuko ditu asteazkenean. Aitziber Gurutzeaga egitarra 'Egian euskaraz bizi nahi dugulako' erronkaz mintzatuko da auzo mailan burututakoa eta Aňorgako esperientzia berriz kuadrillen artekoa izan da, amaitu berri da eta Maddi del Campok kontatuko du nola joan den.

Ormazabalek berriz, solasaldia dinamizatu eta Ttakuneko kide eta Maratoiko antolatzaile den neurrian herrian bizitakoak aipatuko ditu.



Egia auzoan izan zen Lutxo Bilbon bizitakoa azaltzen.

IRUTXULOKO HITZA

Publikoaren artean beste mikro bat izango da eta bertaratutakoek parte hartzea izango dute. Bitxikeriaz jositako

lagun arteko solasaldia izatea bilatzen du Ttakunek eta herritarrek gerturatzera animatzen ditu.



Teresa sorgina iristearrekin batera, eztanda egin zuen festak, Sorgin dantza eskaini zioten haur zein helduek.

Teresa sorginari agur

Zabaletan jai giroa nagusi asteburuan

Ekintza egitarau zabalaz gozatu ahal izan dute asteburuan Zabaletako bizilagunek. Eguraldi ona lagun, jai giro aparta izan da ostiraletik igandera. Haur zein helduentzako ekintzek jendea erakarri dute. Aurtengoan ere Sorgin krosa egin zen larunbatean eta Ibai Albak irabazi zuen 6,6km-ko ibilbidea 21 minututan osatuta.

TXINTXARRI

Beste urte batez, Zabale-tako jaiek ez zuten hutsik egin. Asteburuan herritar asko bildu ziren ekintza egitarau zabalaz gozatze-ko. Ostiraletan antzerkia eta txokolatadaren ostean iritsi zen Teresa sorgina, jendetza bildu zen ongietorria egitera tartean Jalguneko lagunak izan zirelarik. Dantza ikuski-

zuna izan zen iluntzean eta parranda nahi izan zutenentzat Iratzar taldeak jarri zuen musika. Larunbatean berriz, kirolak hartu zuen auzoa. Oraindik azken parranderoak auzoan zirela, hasiera eman zitzaion 3. Sorgin Krosari. Aurtengoan 44 parte hartzailek osatu zuten 6,6km-ko ibilbidea. Lehenengoa helmugara iristen Ibai Alba izan zen. Bere atzetik sartu zen segun-

du batzuetara, Dabid Martin eta hirugarrena izan zen Javier Garcia. Emakumezkoetan, Pili Bodegas herritarra izan zen lehenengoa, bere atzetik Anabel Eleno eta Maite Salazar sartu zirelarik. Eskoba eta mus txapelketak ere jokatu ziren eta arratsaldean txirrindulariek hartu zuten auzoa. Bertso saioa beste parranda gau baten aurrekari izan zen.

Atzokoan berriz, euskal dantzak, herri kirolak eta ohi-tura den proba mistoaz gozatu ahal izan zen. Xumela eta Errebal taldeen musikarekin agurtu zituzten festak zabaletako bizilagunek. Ohi bezala, Teresa sorginari agurra eta azken traka egin zen.



Iratzar taldeak itxi zuen ostiraleko jai eguna.



44 parte hartzaile izan ziren larunbateko Sorgin Krosan.



Eskoba eta Mus txapelketak klasiko bat dira Zabaletako jaietan.



Xumelak emanaldi polita eskaini zuen igande arratsaldean, plazan bildutako jendea eurekin abestera animatu zen.



Igandean herri bazkaria egin zen eta bertan banatu ziren opari eta sariak.



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria • Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51

zerbitzu
mistoak

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

- Makillajea
- Manikura eta pedicura
- Era ezberdinetako depilazioak
- Befileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

TRIATLOIA.-

Hamaseigarrenez ironman batean

Andoni Illarramendi bederatzigarren izan da IronCat proban, 9:21:11ko denborarekin

Bost urte eta gero, ironman distantziako triatloi bat burutzeran animatu da berriro Andoni Illarramendi herritarra. Tarragona aldera joan zen maiatzaren 28an, IronCat proba egitera. Ez zitzaion batere gaizki joan: bederatzigarren helmugaratu zen, 9:21:11ko denbora eginez. "Pozik" dago egindakoarekin.

IÑIGO GONZALEZ

Gustura nago egindakoarekin, ezin naiz kexatu, baina sentsazio gazi-gozoarekin geratu nintzen IronCat proba amaitu ostean. Maratoian ederki ari nintzen lasterka, baina bukaera aldera arazo muskularrak eduki eta amaierako denborari minutu batzuk gehitu. Hala ere, sentitzen dudanak gehiago du gozotik, gazitik baino". Horrela laburbiltzen du Andoni Illarramendik maiatzaren 28an burutu zuen ironman distantziako IronCat proba.

Igerian 3,8 kilometro egin zituen, 180 bizikletan eta 42 korrika. Bederatzigarren postuan helmugaratu zen, proba 9:21:11ko denboran eginda.

Bost urte eta gero

IronCat-ean aritu baino lehen, pasa ziren bost urte Illarramendik aipatu ezaugarrien antzekoak dituen proba batean azkenekoz parte hartu zuenetik. "Oso mentalizatuta egon behar duzu gisa horretako esfortzuak egiteko, ordu asko-

ko entrenamendu errutina bat jarraitzeko; gogoia eduki behar duzu, eta hori berreskuratu dut orain, horregatik erabaki dut ironman batean aritzea berriz", zehazten du herritarrak.

Azken honekin, hamasei ironman egin ditu jada Illarramendik, triatloiaren munduan murgilduta daramatzen hogeitau urteetan; 43 urte ditu berak. Triatleta lasarteoriatarren esanetan, ironman bat burutzeko adin-tarte "aproposena" 32 eta 40 urte bitartekoa da. "Urteen poderioz fondoia eta erresistentzia irabazten dituzu, baina 'txispa' galtzen zoaz, eta hori ere beharrezkoa da proba horiek egiteko. Gorputza adin-tarte horretan dago %100ean, nire iritziz".

Irizpide horren arabera, ondoriozta daiteke ironman egiteko garai onena pasa dela jada herritarrarentzat. Teorian, gero praktikak erakusten baitu sasoi betean dagoela. Arestian esan bezala, bederatzigarren postua erdietsi zuen IronCat lasterketan, 9:21:11ko denborarekin. Egin dituen hamasei ironmanen denborak eskuetan,

pasa den maiatzaren 28koa bigarren onena izan da, Illarramendik berak zehaztu legez. Ez da Tarragona aldean jokatzen den proban parte hartzen duen lehenengo aldia: aurreneko edizioan irabazi egin zuen -aurtengoa hamabigarrena izan da-, eta bigarren eta laugarren ere egin izan du.

"IronCat proba purua dela esango nuke; gaur egun polemika handia sortu du bizikletaz egin beharreko zatian lasterkariak besteen gupilari pega-pega eginda joateak. Berez, ironman batean ezin da hori egin, baina praktikan ez da beti betetzen. IronCat-en, ordea, bai; berezia da oso lasterketa hori", zehazten du.

Elikadura aldaketa

Bistan denez, herritarrak ongi asko ezagutzen du IronCat. Dena den, aurtengo edizioari ekin aurretik, bazuen ezinegon apur bat, elikadura aldaketak eragindakoa. Orain dela pare bat urtetik, Illarramendi begetarianoa da.

"Beldurra neukan, ez bainekien zenbaterainoko eragina izan zezakeen aspektu horrek probak egiterakoan. Izan ere, begetariano bilaketzea erabaki nuenean, nire gorputza egokitu egin behar izan zen horretara. Dena den, lehenengo maila berean egotera iritsi naizela uste dut".



Andoni Illarramendik hogeitau urte daramatza triatloiaren munduan.

Entrenamenduak

Astean hirutan egiten du igerian, Kiroldegian, Buruntzaldea IKTko master atalean. Bizikleta eta korrika saioak ere egiten ditu, jakina. Gehienbat, asteburuetan: orduan izaten du denbora libre gehien. Ironman bat prestatzen ari denean, lan-saioen erritmoa eta iraupena progresiboki igotzen ditu, bospasei orduko entrenamenduak egiteraino. Andoaingo Zumeatarra triatloi taldean aritzen da gaur egun.

Fisikoarekin batera, baina, burua ere landu behar dela dio herritarrak. "Gakoa da, probe-

tako une askotan tentazioa eduki ohi da erretiratzeko; indartsua izan behar duzu aurrera egiteko".

Indarraz hitz eginda, familia eta lagunaren babesa ekartzen du gogora Illarramendik. "Eskerrak eman nahi dizkiet, haiek gabe askoz ere zailagoa baita hau dena".

Ekainaren 11n Zarautzeko triatloia jokatuko du. "Presiorik gabe" joango dela dio, bi aste besterik ez baitira pasako IronCat egin zuenetik. "Ironman batetik osatzeko, hilabete behar dut; hala ere, Zarautzen jada izena emanda nuenez...".

FUTBOLA.-

Herriko taldeen eskaintza gatzetxoentzat

Texas Lasarteak eta Ostadarrek egitasmoak dituzte martxan herriko neska-mutilei futboleko murgiltzen hasteko aukera emateko.

'Manuel Isasa Iturrioz' kanpalekuaren 1go edizioa jarriko du martxan Texasek aurten. Helburua da harrobiko taldeak eratzeko datorren denboraldira, eta jokalariek elkar ezagutzen hastea. Antolatzaileek zehaztu dutenez, udako kanpaleku hau ez da izango loteslea. Bestela esanda, beste talde batzuetan aritzen diren gatzetxoek ere ahalko dute parte hartu, datorren denboraldian Texasen aritzeko konpromisoa hartu beharrik gabe.

Lehenengo entrenamendu-saioa bihar egingo dute, Michelingo zelaian, 17:30etik 18:00etara bitartean. Izen-emate prozesua egiteko ere baliatuko dute biharko saioa.



Ostadar SKTko futbol eskolako kideak izandakoak, artxiboko irudi batean.

Ostegunean, Mikel Etxarri herriko entrenatzaileak gidatuko du entrenamendua. Astearteko saiora etortzen ez direnak ostegunean apuntatu ahalko dira. 30 euro balio du inskripzioak; %15eko deskontua edukiko dute familia ugariak. Kanpalekuak hiru aste iraungo ditu, gaur hasten dena eta hurrengo biak, hain justu.

Futbol eskola

Ostadar SKTren futbol eskolan izena eman daiteke jada, datorren denboraldirako. Gaurtik hasita eta hilaren 17ra arte apuntatu ahalko dira gatzetxoak. Ostadarren bulegoan egin beharko da inskripzioa, 18:00etatik 20:00etara. Urriaren 5etik maiatzaren 26ra artekoa izango da denboraldia.

LABURRAK.-

Hasi dira 100 urteen ospakizunak Hipodromoan

Hipodromoak mendeurrena beteko du aurten. Urtemuga berezi hori ospatze aldera, udarara begira 79 lasterketa antolatu dira; hamabost jardunalditan jokatuko dira horiek denak. Azkenekoa, irailaren 19an, larunbatekin; Donostia Saria jokatuko da egun horretan. 896.000 euro banatuko dira sarian, guztira. Iragan asteko ostiralean jokatuko zen lehenengo jardunaldia. Besteak beste, Ainhoa taberna saria.



'Koroibos Race' proba larunbatean herrian

Euskal Herrian inoiz ikusi ez den lasterketa batez gozatu ahalko dute herritarrek larunbat honetan: 'running'-a eta indarra uztartuko dituen 'Koroibos Race' delakoaz. Oriako frontoitik abiatuko dira, 10:00etan. Hiru kilometroko ibilbidea egin beharko dute; hori burutu bitartean, mota desberdinetako hamar indarproba topatuko dituzte: harriz betetako garagardo barril bat altxatzea, gupil bati buelta ematea, 250 metrotan zehar enbor bat eramatea, eta abar. Bi kategoriatan lehiatu daiteke: 'RX' eta 'Open' delakoetan -aurrenekoek pisu gehiago altxa beharko dute-. Izena emateko, kirolprobak.com atarian sartu beharko dute interesa dutenek. Lasterketa amaitzerakoan, hainbat sari zozketatuko dira parte hartzaileen artean. Urbil merkatal zentruak eta Powerkan-ek babesten dute kirol ekitaldi hau.

Agenda

Astelehenetik ostiralera, Lasarte-Oria



Oholtza antzerkirako prest!!

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako lagunek 14. Antzerki eta Dantza hamabostaldia antolatuta dute. Lehenengo aste honetan antzerkia izango da nagusi. Asteazkenetik, ikastetxeetako gaztetxoek erakutsiko dituzte haien lanak; ostiraletan, aldiz, helduek. Baina antzerkiez gozatu baino lehen festa izango da gaur arratsaldean.

OKENDO PLAZA

Gaur, astelehena 06, 18:00etan
Antzerki eta Dantza hamabostaldia hasiera festa egingo da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astearte 07, 19:00etan
'Ipuin Klasikoen bertsioa'. LH5
'Oraingoan gaiztoek irabaziko dute'. Sasoeta LH4-5

Osteguna 09, 19:00etan

'Hotel Transilvania'. LH3-4
'Mimokeriak'. LH3
'Ipuin kontari'. LH4
'Sentimenduak eta gu'. Zubieta LH3-4

Ostirala 10, 20:00etan

'Ilargiaren bila' lana helduen taldearen eskutik.

OKENDO PLAZA

Larunbata 11, 09:30etik 13:30era
Herritarrei zuzendutako Asiako liztorrei buruzko informazio gunea jarriko da. Erleak ikusteko aukera ere izango da.

Erromeria

ATSOBAKAR PARKEA

Larunbata 11 eta igandea 12
Semblante Andaluz elkarteak XIII. Rocioko Erromeria ospatuko du. Hamaika ekintza eta elkarte gonbidatuak ere izango dira.

Erakusketa

ANTONIO MERCERO ARETOA

Ekainak 11a arte
Brancussi akademiako ikasleen lanak ikusgai izango dira.

Astigarraga

Musika eguna

ASTIGARRAGA

Larunbata 11, 09:30etik 13:30era
Txistularien diana, musika hezkuntza goiztiarra (0-3 urte), biolin taldea 1, 2 eta 3 urteko ikasleekin tailerra, AHIT taldearen kalejira, pop taldeen emanaldia eta amaierako ekitaldia.

Usurbil

Erakusketa

POTXOENEA

Uztailaren 3a arte
'Ikimilikiliklik, J.A. Artzeren unibertsoa' erakusketa. Artzeren unibertso poetikoan zehar zentzumenek gidatutako bidaia da. Jexux Artze K.E.k eta Usurbilgo Udalak antolatuta.

Lasarte-Oria

Hitzaldia

BIYAK BAT ELKARTEA

Gaur, astelehena 06, 18:00etan
GuraSOS eta Biyak Bat elkarteak antolatuta, 'Erraustegiaren arriskuak' solasaldia izango da. Biyak Bat elkarteak bazkide eta aitona-amonei zuzendutako saioa.

FURIA BELTZA

Astearte 07, 19:00etan

Hassana Aalia aktibista sahararrak Mendebaldeko Sahara okupatuaren egoerari buruzko hitzaldia eskainiko du. Otsailean eskaini behar zuen hitzaldia.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena 08, 18:00etan

Norbera elkarteak 'Nerabeak dituzten familiek: tratu oneko erlazioaren ezaugarriak' izeneko hitzaldia emango du.

Mikro irekia

JALGI KAFE ANTZOKIA

Asteazkena 08, 19:30ean

'Euskara, ezagutzatik erabilerara' mikro irekia egingo da. Lutxo Egia bilbotarra, Aitziber Gurutzeaga egitarra, Maddi Del Campo añorgarra eta Mari Karmen Ormazabal Ttakun Elkarteak kidea izango dira hizlari. Esperientzia trukaketa egingo da. Ttakun KEko 25. urteurrenko ekintza.

Kultura Auzoetara

LA ESPERANZA AUZO ELKARTEKO LOKALA

Astearte 07, 18:00etan

3 eta 7 urte haurrentzako ipuin-kontalaria izango da.

ORIAKO KARMENGO AMAREN KAPERA

Astearte 07, 19:00etan

Udal Musika eskolako ikasleek hainbat doinu eskainiko dituzte.

Aste Berdea

KALE NAGUSIA

Asteazkena 08, 09:30etik 13:30era

Herritarrei zuzendutako Asiako liztorrei buruzko informazio gunea jarriko da. Erleak ikusteko aukera ere izango da.

Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabete honetan ekainaren 20an, astelehena, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Italiara bidaia

Uda honetan Roma, Florentzia... aldeira modu independentean bidaiatzeko 40 eta 55 urte arteko pertsonak osatutako taldea sortu nahiko nuke. Anima zaitetz! Harremanetarako, 667 075 139, Asun. WhatsAppera ere erantzuten du.

Hemeroteka

Duela 1221 ale



Lasarte-Oriako euskalgintza arloan urteurrenaren urtea dugu 2016a, baina kultura arloan ere badago data berezirik ere. Udal liburutegiak 30 urte beteko ditu urriaren 18an. Horregatik, atal honetan, 1998ko ekainaren 12ko zenbakian argitaratu genuen erreportajea dakargu gogora.

Izaskun Urdanpilleta eta Josune Iradi liburuzainekin liburutegiko nondik norakoak, zerbitzu berriak eta bitxikeriak aztertu ziren.

Lehen pausoak Erribera kalean eta gerora, Manuel Lekuona kultur etxera leku aldatu zen liburutegia. 1998an, 5.000 pertsona zeuden izena emanda libutegian eta 30 urtetik gorako pertsonak gehien bat liburu mailera erabiltzen zutela nabarmentzen zuten.

Gurasoek haurren irakurletasuna sustatzen zutela eta haurrek euskarazko liburuak etxera eramaten zituztela ere aipatzen zuten.

Liburutegiko erabiltzaileen kexei ere tarrea egiten zitzairen, batez ere, goiko pisueko soinuekin arazoak zeudela. Hala ere, liburutegi bizia gurela azpimarratzen zuten.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintzarri@txintzarri.eus

TXOKOAK 2016: JANGELA ZERBITZUA!

Aurten, udako txokoak 15:15 arte luzatzeko aukera, jangela zerbitzuarekin!!
Izen ematea zabalik ekainaren 6tik 16a bitarte Ttakuneko bulegoan.
Plaza mugatuak.

Matrikulatzeko bete orria:

Izen abizenak:

Aukeratu hilabetea:

Uztaila

Abuztua

Oharrak (alergiak, intolerantziak, dieta bereziak...):

*Haurrak dieta bereziren bat edo elikagairen bati alergia izanez gero dagokion medikuaren informea beharko genuke.

**Behean izenpetzen duenak, haurraren aita, ama edo tutorea den aldetik, bere erantzukizupean ADIERAZTEN DU egiazkoak direla eskabide honetan azaltzen diren datuak eta zerbitzuaren baldintzak onartzen ditu.

Eguna:

Sinadura:

Ttakuneko
bazkideak

90€

Ttakuneko ez
bazkideak

95€





R.P.S. 17915 L.L.G.

**ERLAXATU ETA BABESTU
ZURE BEGIAK**
ordenagailu, tablet, mugikor... pantailetatik

ESSILOR EYEZENEKIN,
**EGUZKITAKO BETAURREKO
GRADUATUAK OPARI**

www.multiopticasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE


MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

2 ETA 3 GELAKO ETXEBIZITZAK 4 GELAKO ATIKOAK, GARAJEAK ETA LOKALAK

SALGAI!



 **ZUBIEDER**
CONSTRUCCIONES

 **609 000 140**

PROMOCIONES LANONDO, S.L.
LANONDO